

Mikel Laboa in Memoriam

(Mikel Laboa In Memoriam)

ALBISU BARANDIARAN, Josune
Euskal Herriko Unib. (UPV/EHU). Filosofia eta Hezkuntza
Zientzien fak. Tolosa hiribidea 70. 20018 Donostia

Komunizazio honetan, Mikel Laboaren haurtzaroa eta obra ardatz hartuko ditut, zenbait ideia eta konzeptuei buruz hausnarketa egiteko. Marc Augé-rengandik jasoko ditut bi ideia; batetik, ahanzturaren beharra, memoria lantzeko eta jakinmina ez galtzeko. Honetarako ahanzturaren hiru figurak adibide baten bidez landuko ditut. Eta bestetik, kontakizunek, gure bizitza eraikitzen dutenaren ideia. Kontakizun indibidualak nahiz kolektiboak behar ditugu, kontakizun unibertsalak eraikitzeko. Bukatzeko, bi konzepturen inguruko hausnarketa egingo dut, biak ala biak memoriarekin eta oroitzapenen aukeratzearekin erlazioatuko ditudalarik: omenaldiak eta heriotza.

Giltza-Hitzak: Mikel Laboa. Haurtzaroa. Memoria. Oroitzapena. Ahanztura. Omenaldia. Heriotza.

En esta comunicación abordaré la infancia y la obra de Mikel Laboa para reflexionar sobre varias ideas y conceptos. Tomaré dos ideas de Marc Augé: por un lado, la necesidad del olvido para forjar la memoria y no perder la curiosidad –recurriré a un ejemplo para cultivar las tres figuras del olvido–; y por otro lado la idea de que los relatos construyen nuestra vida. Para confeccionar relatos universales necesitamos crónicas tanto individuales como colectivas. Para terminar, reflexionaré sobre los homenajes y la muerte, conceptos ambos que vincularé con la memoria y con la selección de recuerdos.

Palabras Clave: Mikel Laboa. Infancia. Memoria. Recuerdo. Olvido. Homenaje. Muerte.

Dans cet exposé, j'aborderai l'enfance et l'oeuvre de Mikel Laboa pour réfléchir sur différentes idées et concepts. J'emprunterai deux idées à Marc Augé : d'un côté, la nécessité de l'oubli pour forger la mémoire et ne pas perdre la curiosité (pour cela, j'aurai recours à un exemple pour cultiver les trois figures de l'oubli) ; et, d'un autre côté, l'idée que les récits construisent notre vie. Pour élaborer des récits universels, nous avons besoin de chroniques tant individuelles que collectives. Pour terminer, j'orienterai ma réflexion sur les hommages et la mort, deux concepts que je lierai à la mémoire et à la sélection des souvenirs.

Mots Clés: Mikel Laboa. Enfance. Mémoire. Souvenir. Oubli. Hommage. Mort.

Eskerrik asko Mikel, eman diguzun guztiarengatik.

Eskerrik asko, zure denbora, karakolak egiten duen zilarrezko bidearen pareko izan delako¹.

Artista eta pertsona bereizteko tentazioa izaten dugu askotan. Izan ere, bizitzari exijitzen diogun maximoetan, alegia, perfekzioan sinesten dugulako -edo, gustukoa goa izaten dugu artista pertsona bera baino; edo pertsona bai, baina, askotan, artista ez horrenbeste. Zaila egiten zaigu onartzea, perfekzioa ideal bat baino ez dela, eta dagokion trataera eman behar diogula. Nire ustez, artista ezin da pertsonatik bereizi, elkarren arteko harremanetik sortzen baita pertsona-artista.

Zuhaitz baten oinarria sustraiak diren bezala, pertsona baten oinarria bere haurtzaroa da. Haurtzaroaren baitan joaten gara eraikitzen gure bizi kontakizuna, eta zenbat eta helduagoa izan, orduan eta haurtzaro gehiago izango ditugu. Honekin esan nahi dut, gure esperientziak metaketak direla, hau da, memoria eta ahanzturaren bidez kudeatzen dugula gure kontakizuna.

Mikel Laboaren pertsona eta artista aztertzen dugunean konturatzen gara bere bizitza, esperientzia metaketa izan dela, eta oinarria ahaztu gabe jakin duela etorkizuna eraikitzen. Azken finean, sustraiak sendo zituen zuhaitz emankorra izan da; alegia, zuhaitz-adaska gaztez beteriko zuhaitz emankorra, eta hauek ere emango dituzte fruituak, atsedenek hartu gabe.

1. MIKEL LABOAREN HAURTZAROA

Mikel Laboa Manzisidor 1934ko ekainaren 15ean jaio zen Donostiako San Juan kalean. Gaur egun (2011) bere omenez plaka bat dago jarria. Itsasoari eta musikari lotutako familia baten altzoan hazi zen. Aitonak eta aitak, musika maite zuten. Eduardo Laboak bere aitona, Pasai Donibaneko bandan jotzen zuen eta familiakoen musika irakaslea zen. Feliciano Laboak, bere aitak, fiskornioa jotzen zuen Donibaneko *La Constancia* bandan, eta Mikelen amak, Estefania Manzisidor Iburgurenak, herriko koruan kanatzen zuen. Gabonetan, etxeko koru familiarra, kantak eta euskal kanta zaharrak gozatzen zekien familia zen Mikelena.

Mikelek 2 urte zituenean Gerra Zibila lehertu zen eta Mikelen aitak, EAJko zinegotzi Donostiako Udalean, ihes egin zuen Bordelera. Bitartean, ama eta zazpi seme-alabak Lekeitioko Gardata auzoan ezkutatu ziren. Gerra garaia izan arren, oroitzapen onak ez ditu Mikelek falta; baserria, abereak, baratza eta noizbehinka portua eta arrantzaleen mintzoa. Oroitzapen txarrak ere izan zituen tartean, Andoni izeneko anaia hil baizitzaion. 1937ko faxistek Gernika bonbardatu zuten. Egun hartako oroitzapena ez izan arren, bere haurtzaroan egun hartako aipamena askotan entzun zuen Mikelek, Gernikan jausitako bonbak Gardatako baserritik entzun ahal izan baitziren. Gerra amaitu baino lehen, Mikelen familia Donostiara itzuli zen, aita beranduago itzuliko bazen ere. Gerra ondorenak egoera guztiz aldatu zuen, Mikelen Euskara ahulduz joan zen.

1. GORRITI, J. *Sormen gaitasuna kitzikatuz: sormena lantzeko bideak*. XXVIII. Uda Ikastaroak (UPV/ EHU), Donostia. 2009.

15 edo 16 urte zituela, Juan Jose Lasa bere arrebaren senarrak eraginda, gitarrarekiko zaletasuna piztu zitzaion. Garai honetan armonikarekin ere saiatu zen. Bere ikastetxean, marianistetan, *Jangoluke* izeneko hirukote bat osatu zuen beste bi lagunekin. 12 urteko neskato batekin liluratuta gelditu zen Mikel, Marisol Bastida zen. Donostiako *La Perla*-n, Merkataritza Eskolako ikasleek ikasketa bidaia bat egiteko antolatu zuten festa batean ezagutu zuen. Marisol, emazte eta Agurtzane eta Izaroren amaz gain, bere sorkuntzan ezinbesteko laguna du Mikelek. Batxilergoa amaitu ondoren Mikelek Medikuntza ikastea erabaki zuen. Erabaki honek etxetik kanpo ikasketak egitera behartu zuen, Madrid, Iruñea, Zaragoza eta Bartzelona hurrenez hurren.

2. MEMORIAREN GARRANTZIA

Mikel Laboaren haurtzaroari begiratzen badiogu, hiru elementu daude kontuan hartzekoak, gerora bere bizi kontakizuna ulertzeko. gerraren ondorioa, hizkuntzaren galera eta musikarako joera. Hiru konstante horiek errepikatuko dira Mikelen bizitzan, eta horien bidez ulertuko dugu Mikel Laboaren kontakizuna.

Marc Augéren *Las formas del olvido* liburuan oinarrituko naiz, bertan agertzen diren bi ideia interesgarri neure egin, eta Mikel Laboak eginiko lanarekin erlazionatzeko:

Lehenengo ideia da jabetzea, kontakizunak, gure bizitza eraikitzen dutela eta aldi berean gure bizitzak kontakizun indibidualak nahiz kolektiboak behar dituela, kontakizun unibertsalak osatzeko.

Mikel Laboaren lehen urteak besteen kontakizunen harira eraiki ziren, alegia, Laboak ez zuen eraiki bere kontakizuna, inguruak baizik: oro har, familiak eta gizarteak. Agi denez, gerra garaian jaio izana, eta familia nazionalistakoa izatea erabakigarria izan zen, gerora, Laboaren oroitzapena finkatzeko. Batetik, gerraren ondorioak eta miseria pairatuko zituen: etxe eta leku aldaketa zein Gernikako bonbardaketa. Nahiz eta garai hartan txikia izan, mahai inguruko hitz aspertuak nahiko izan ziren bere gogoan betirako finkatzeko. Teresa del Vallek azaltzen duen moduan (Valle del, 2002: 245), jakin baitakigu memoriak ez duela bakarrik bizi eta ikusitako hura jasotzen, besteek kontatutakoa ere, geuk bizi izan bagenu bezala, gure memorian finkatua gelditzen dela. Bestetik, familia nazionalista izanik, gerra horretan galtzaile atara zen, izan ere, beste gauza askoren artean, euskaraz hitz egitea debekatu zuten, eta ondorioz euskara, ama hizkuntza, galdu egin zuen Laboak.

Beraz, gertakari horiek dira Laboaren memoriaren oinarri. Eta bere bizitzaren kontakizuna eraiki ahala nagusiki agertzen dira. Nerabezaroan, musikarako joerak lagunduko dio bere kontakizuna eraikitzen. Are gehiago, esango nuke sorkuntza bidelagun izatea. Gitarrarekin lortuko du bere baitan dituen oroitzapenak eta kezkek azaleratu eta barneko egonezinak bideratzen. Horretan datza Laboaren ekarpen garrantzitsuenetako bat: bere hizkuntza, euskara, indartu eta euskal kultura berpiztea. Izan ere, garai hartan Euskaldun askok berreskuratu nahi zuen ama hizkuntza (euskara). Herri baten kultura zauritua edo erdi hilik dagoelarik, Laboak bere barnea antolatu nahirik, herri baten gogoan berpizten lagundu zuen.

Bigarren ideia da, kontakizun hauek ulertzeko, gizakiok nola kudeatzen dugun gure denbora eta ahaztearen garrantzia. Azken horrek laguntzen baitigu memoria ez galtzen, eta, aldi berean, jakin mina izaten (zirikatzen). Marc Augéren aburuz, denbo-

raren kudeaketak ahanzturaren hiru figuratan du oinarri. Hiru figura horiek lehenaldia, oraina eta etorkizuna izango lirarteke. Aurrerago izango dugu parada hiru figura horietaz hitz egiteko. Orain, haurtzaroak gure memorian uzten duen arrastoa azpimarratu nahiko nuke.

Arestian esan dugu Laboak abestien bidez lortu duela herri edo komunitate baten nahia zabaltzea eta batzea. Ildo horretan, Laboaren komunikazio gaitasuna ez dago zalantzan jartzerik. Komunikazioaren inguruan Egañaren hitzak erabiliko ditut ondoren. ...*komunikazioaren arrakasta, bat-batean esandakoa bat-batean ulertzean datza* (Egaña, 2004; 46). Kasu honetan Egaña bertsolaritzaz ari da; kantagintzan, ordea, esango nuke komunikazioaren arrakasta bi eratara lortu daitekeela, kantak bertso gehienak ez bezala, grabatu egiten baitira. Lehena, bat-batekoa ez baba ere, kanta entzundakoan, sentitu daiteke edo ez, eta bigarrena kanta entzunez aukera duzu zer-bait kilikagarria sentitzeko edo erabat aspertzeko. Nire ustez, Mikel Laboaren kasuan, kanta herrikoiak edo "figuratioak" entzuten ditugunean, kantuaeren ulertzea edo sentitzea, berehalakoan gertatzen da, aitzitik, bere kanta esperimentalak edo abstraktuak entzuten ditugunean ez dira ulertterazak, agian ez dugu ulertzen ere saiatu behar.

Peio Urtzelaireren arabera:

[...] Bi hari nagusi uztartzen dira Mikel Laboaren sorkuntzan: bata, herri kantagintzan oinarritzen da eta garatzen du; bestea, esperimazioan murgiltzen da, ahotsa, musika eta keinuaren bestelako aukerak jorratzen ditu, adierazpide berrien bila, barne bzipen sakonak transmititu ahal izateko. Beti iruditu zait Mikelek bereziki gogoko izan duela bigarren hari hau. Ildo hori azaltzen jartzen zuen grina ez zela soilik ulertzeko zailago delako, bereago sentitzen zuelako baizik².

Laboaren kantagintzan barneratu aurretik, jorratzen dituen hiru lerro aipatuko ditut. Batetik, musika nahiz hitza herrikoia, alegia, tradizioan oinarritutakoa. Bigarren lerroa, euskal nahiz kanpoko poeta garaikideen hitzak oinarri harturik eginiko kantak. Eta hirugarren lerroa, musika esperimentala edo, egokiago esanda, musikaren gainean eginiko hitz eta doinu inprobisatua litzateke. Laboaren jardun musikalean, hiru lerro edo ildoak nahiko parean eta era nahasian landu dituela esan dezakegu.

Lehenengo lerroa, alegia, musika nahiz hitz herrikoia oinarri harturik izan zuen abiapuntua Mikel Laboaren kantagintzak. Baina ez zen Laboaren jardun musikalaren hasiera bakarrik izan. Oso kontuan hartu behar dugu, euskal kantagintza berriaren hastapenak ere, izan zirela. Laboak, 1964. urtean grabatu zuen bere lehen diska eta Zeruko Argia aldizkariak bere lehen diskoaren argitalpena zela eta, egin zion elkarrizketan nabarmendu zuen bezala:

[...] uste duzu euskal abesti berri bat sortuko dala? Galdetu zion Zeruko Argiako kazetariari (Zeruko Argia, 1965, Dagonillak 1). Bai garai batian beste erritmo batzuekin gertatu zen bazala, orain ere sortuko da abesti berri eta berezi bat, latindarren eta anglosjondarren desberdina. Bere seilo berezi bat izango duana esan nahi dut. Gainera bere gaia mamitsua izatea lortu behar litzateke (alegia, problema espiritualekin, sozia- lekin ta...) tamala bai da jendeari iristeko, horrelako bide on bat alperrik galtzea³.

Beraz, Laboa eta euskal kantagintza berria elkarrekin hazi direla esan dezakegu.

2. URZELAI, P., www.berria.info. 2009-03-16.

3. AEK, ELKAR.1995;21or.

Bigarren lerroa, nolabait lehenengoaren jarraipena dela esan dezakegu, desberdintasun bat duelarik, hitzen jabeak, Mikel Laboaren lagunak edo bere pentsaerarekin bat datozenak izatearena; alegia, kanta hauek ez dute ahozko euskal tradizioan oinarririk, baizik idatzietan eta harreman pertsonaletan aurkituko dute bizitza. Behin sortu ondoren, Laboak bere musikaren bidez eta denboraren poderioz, hitz tradizional bihurtu badira ere. Esaterako, *Txoriak txori* J.A. Artzerena. Adibide honetan ere garbi ikusten dugu denboraren joan etorria, lehen orain eta gero. Belaunaldi berrien etorrera eta lekuko baten beharra, hurrengo belaunaldiek lekuko hori jaso dezaten. Baina lekuko horrek ez du zentzurik aldaketarik gabekoa bada.

J.A. Artzek dioen bezala:

Herrian denboretan zehar, maitasun eta gorrotoan ondu ziren kantuetara jo zuen, izkutatu diguten kondairaren bila, gure kantukeraren atzetik, ikasi ahala herriz herri besteei kantatuz, gure hegoalde honetako jendeok beste eskualdetako berri ukan genuen, hau da, gure historiaren alde baten berri.(...)Mikelek ez zuen kanta zaharretara jo, berrien beldur zelako. Denborak erakutsi digu ez dela izan hala, atzoko kantukeraren oinarritu zen, han alfabetizatu zuen bere burua, gaurko borrokaren adierazpen izateko beharrezko zeritzaion (Ibid; 110).

Alegia, memoriak betetzen duen paper garrantzitsuak konturatzen gara. Zein baliagarria den oinarri bat izatea, sustraiak izatea, aurrerapausoak emateko, norbana-koaren, komunitate baten izaera garatzen joateko bere seilu bereziarekin.

Hirugarren lerroa, alegia, esperimentalak, eta Lekeitioak izenarekin ezaguna, 1969.urtean Mikelek, euskal tradizioan aurkitutako bi poema onomatopeikoren uztarketa eginez, hitz eta hots jokoz jositako kantu bat sortu zuen. Mikel Laboaren kanta esperimentalen inguruan, Peio Urtzelaik dio:

Ez da kasualitatea Baga-biga-higa (1969) kantuarekin hasitako bide esperimentalari disko guztietan eutsi izana eta, hainbat urte geroago, lan horiek guztiak album berezi batean, Lekeitioak (1988), bildu nahi izana. Bere sormenaren harribitxia bailitzan⁴.

Kuriosoa da ikustea, nola, Mikel Laboaren lerro esperimental, abstraktu eta aurrerakoiarena, bere haurtzaroko oroitzapenetan oinarriturik dagoen. J.A Artzek dioen bezala:

Haurtzaroak asko markatzen du jendea eta bere kantugintzarekin zerikusirik duelako, Mikelenaz ere zerbait esan beharra dago. (...) Mikel, garai haretan, Lekeitioko kaleetan arrantzaleak botatzen zituzten ohiauak, ontzira joateko edo arraia saltzeko edo lanerako deiak gogoan ditu. Bere kantu esperimentalak egiterakoan iturri hoietatik edan duela aitortzen du eta nahiz geroztik urak bide egin duen, ez da iturriaz ahaztu eta kanta sail hori Lekeitio izenaz izanpetzen du⁵.

Interesgarria da behatzea, nola, gure haurtzaroko oroimena, alegia, lehenaldia, orainaldian pausatzen den etorkizuneko estetika sortuz. Argi azaltzen zaizkigu adibide horretan, hiru denborak uztartzeko erak eta, aldi berean, bakoitzak indibidualki betetzen duen zeregin zehatza.

4. URZELAI, P., www.berria.info. 2009-03-16.

5. AEK, ELKAR, 1995;111-112 or.

Hortaz, esaterako, hiru lerro horiek eskultura edo pinturarekin erkatuko bagenitu, aipaturiko arte figuratiboan sartuko genituzke, hau da, nolabait esateko, kanpotik edo tradiziotik edandakoa oinarri harturik eta bigarrena, arte abstraktuan, alegia, barruan ditugun sentimenduak transmititzeko modua: Laboaren kasuan, musika eta ahotsarekin ateratako doinuak elkartzuz eta estetika berezi bat sortuz.

Atal honi bukaera emateko eta laburbiltzearen, Peio Urtzelairen hitzak erabiliko ditut, orain arte azpimarratutako ideia, memoriaren beharra, irudikatzen baitute:

Azken batean, nola adierazi doinuaren bidez herri baten iraupenari buruzko kezka? Bide eder bat Xalbadorren Herria eta hizkuntza bertsoak kantatzea izan daiteke. Baina Mikel ez da molde horrekin konformatu. Ipar Ameriketako cherokee indiarren historian inspiratuta, Lekeitio 8 ere sortzea hautatu du, non herri ikusezinaren sentipenak adierazteko cherokee indiarren lanturuak zuberotarren mintzoarekin uztartu dituen. Gernikaren bonbardaketaren tragedia azaltzeko Gernika–Lekeitio 4 sortzean aukeratutako bidearen balioari eutsiz eta berretsiz⁶.

3. AHANZTURAREN HIRU FIGURAK

Marc Augéren *Las formas del olvido* liburua aipatu dut *memoriaren garrantzia* izeneko atalean. Bertan, Augék eskaintzen dizkigun bi ideia aipatu ditut; lehena, kontakizunek, indibidualak zein kolektiboek, erakitzen dute gure bizitza eta azken horrek, alegia, kontakizun kolektiboek eragin zuzena dute kontakizun unibertsalean. Bigarren ideia: ahanztearen garrantzia, batez ere, memoria ez galtzeko eta jakin mina pizteko. Augék, ematen digun ahanzturaren hiru figuren teoria, adibide batez landuko dut.

Iraganaren memoria, etorkizunaren esperantza eta orainaldiari arreta. Beste hitz batzuetan Augék azaltzen digunez, ITZULERA, HASIERA edo BERRIRO HASTEA eta ETENDURA.

Ahanzturaren hiru figura horiek kudeatzen dute gure denbora Mikel Laboak mai-suki jakin izan du hiru figura horiek koordinatzen, bai bere kontakizuna eraikitzeko, baita geurea eraikitzeko ere. Mikel Laboak eskainitako jaialdietako bat tarteko azalduko ditut ahanzturaren hiru figura horiek.

Imajina dezagun Euskal Herrian zehar eta 40 urtetan zehar, Laboak eskainitako jaialdi bat. Erritual batekin konpara dezakegu, non parte hartzaileak, publikoa, musikalaria eta Mikel Laboa bera diren.

Jaialdia bera, lehenagotik ezagutzen dutenentzat ITZULERA izan daiteke, ETENDURA, berriz, musikari eta M. Laboarentzat eta BERRIRO HASTEA, lehenengo aldiz jaialdira joaten direnentzat.

Jaialdia edo errituala hasterakoan, sortzen den giro berezi horretan barnertzean, ikusle-entzuleak bere oraina ahazten du. Publikoa Laboaren azti ahospean izango da bi orduz, aurretik bizi izandako sentsazioak eta sentsazio berriak bizitzeko prest. Honela jaialdiak irauten duen bitartean, publikoak Laboarekin bat egiten du. Ahanzturaren ITZULERA figura izango litzateke, alegia, lehenalditik joan etorri bat egingo genuke.

6. URZELAI, P., www.berria.info. 2009-03-16.

Mikel Laboan erreparatzen badugu, esan dezakegu, denboran ETENDURA izan duela; izan ere, publikoari bere kantak (bere kontakizuna) eskaintzeko, kantaldi honetan eraldatu egiten baitzaigu Augéren hitzak erabiliko ditut: *una estetización del instante presente que únicamente puede expresarse en futuro perfecto* (“*Habré vivido por lo menos esto*”) (M.Augé 1998; 67). Azken pentsamendu horrek bai publikoan, bai Laboarengan izango du eragina. Ikus-entzule eta Laboa- musikoaren artean uztartze lana egongo litzateke, non estetika eta *performancea*-aren bidez, sorkuntzari bidea irekitzen zaion, une magikoa sortuz. Isiltasunak, emozioak, barre algarak, ikus-entzuleen partetik. Eta musika estilo desberdinen uztarketa, onomatopeiak, eta interpretazioa, Laboaren aldetik.

Behin jaialdia edo kantaldia bukatuta, BERRIRO HASTEA deritzon figura dator, alegia, lehenengoz kantaldia bizi izan dutenen, eta, oro har, belaunaldi berrien hasiera. Mugan dagoen egoera baten modura ikusten dut. Jaialdia mugarri izango baita belaunaldi berrientzat.

Garbi ikus dezakegu beraz, nola Mikel Laboak ahanzturaren hiru irudiak erabiltzen dituen bere kontakizunaren eta gurearen zati bat eraikitzeko. Augék, zehazki musikaren inguruan ematen duen iritzia azalduko dut jarraian:

[...] En este tipo de emoción artística, a decir verdad, la figura del retorno no es la única presente; se mezcla con la de suspenso (del instante en el que se borra el pensamiento del futuro y del pasado) y a veces también con la del reinicio... (Augé 1998; 87)⁷.

4. OMENALDIAK

Omenaldien inguruan hausnartzen dugunean, zergatik galdetzen diogu geure buruari; zergatik omenaldiak. Gainera, pertsona heldua eta arlo publikoan ekarpen esanguratsua egin duenarekin lotzen dugu, normalean, omenaldia. Esan dezakegu, nolabait, berak eginiko ekarpena aitortzen zaiola omenduari. Askotan, ordea, hil ondoren antolatzen den ekintza izaten da omenaldia, beraz, omendua ez da jakitun bere omenez egingo den festaz. Orduan, zergatik omentzen dugu hilda dagoen norbait ez badago bertan, eta ezin badu jaso egiten zaion omenaldia?

Zenbait arrazoi egon daitezke horretarako: gizarteak berarekiko sentitzen duen zorra senide eta lagunei adierazi beharra; agian, gerta daiteke omenaldia prestatu bitartean, omendua hiltzea; baina badago omenaldia prestatzeko bereziki aipatu eta azaldu nahi dudana arrazoi bat, hain zuzen, omenduak eginiko ekarpenak eragindako sentimenduek, memoriara ekartzeko beharra.

Adibide gisa jarriko dut Hernaniko Biteri kultur etxean Mikel Laboari eginiko omenaldia, azken baieztapena argudiatzeko:

Apirilaren 25ean, gaueko 23:00etan, Biteri kultura etxean, *Haika Mikel, hernaniko kantariak LABOA KANTARI* izenburupean, jaialdi bat antolatu zuten. Bertan honako hauek hartu zuen parte. Ainara Ortega, Ainhoa Merzero, Ania, Añarbe Kalonge, Eneko Abrego, Garbiñe, Iñaki “zepo”, Ioritz Osés, Julen Cobos eta Morau. Guztiak hernania-

7. AUGÉ, M. *Las formas del olvido*. Barcelona. Gedisa.1998.

rrak, guztiak musikazaleak eta estilo desberdinetakoak: lirikoak, jazza, pop, rock e.a. Bakoitza bere izaera eta estiloarekin.

Sarrerak, astelehen batean salgai jarri eta astearterako, alegia, hurrengo egunerako, denak saldu ziren. Berrehun pertsona inguru sartzen den areto batean izan zen jaialdia, tartean, Mikel Laboaren emaztea zegoelarik.

Ikus entzuleen adinari dagokionean, batez beste, 40-45 urtekoa zela esango nuke, alegia, helduak nagusi ziren. Honek zer pentsatua eman zidan. Han, jaialdian, geunden gehiengoa egona zen Mikel Laboaren jaialdian eta gogoko zituen abestiak; are gehiago, abesti horiek norbanakoaren gaztaroaren osagai zirela esatera ere ausartuko nintzateke.

Abeslarien artean bazeuden gazteak; batzuk, seguruenera, ez zuten Mikel Laboa oholtza gainean ezagutuko, beste batzuk bai. Guztiek egin zituzten Laboak sortutako abestien bertsioak. Abeslari bakoitzak aukeratu zuen zein abesti bertsionatu, eta kurioa izan zen: *Ihesa zilegi balitz abestia* hiru aldiz bertsionatu zuten. Ez zen, horregatik aspergarria gertatu, alderantziz, bertan ikusi genuen bakoitzak, indibidualki, duen berezitasuna eta horrek sortzen duen aberastasuna. Beste hitz batzuetan esanda, artista bakoitzak eta, oro har, pertsona bakoitzak bere ekarpena egiten du: ekarpen partikular, bakarra eta guztiontzat aberasgarria.

Jaialdiaren analisisa egin, eta ondorio interesgarriak lortzen ditugu: gure memoria berreskuratzeko gogoak eta beharra sentitzen genuen han geundenak. Egia da, Mikel Laboa ari ginen omentzen, baina gure bizitzaren sentimenduen errepaso ere ari ginen egiten mikelen abestiekin batera,

Baina memoria lantze hori, ez zen izan Laboaren abestiak interpretatzea, baizik eta Laboaren abestiak bertsionatzea. Han bertsionatu ziren abestiak, nolabait abesti berriei bidea ireki zien, era honetan etorkizuna eraikiz, Laboak abesten zuen eta Xabier Leteren hitza den *negu hurbilak* abestiak esaten duen bezala “*Ez nau larritzen azken orduan/ arnasa galdu beharrak/bide xumea esituarren/amildegia larrak/ ardo berriak onduko ditu/mahastietan aihen zarrak/ gure oraina arrazoiturik/beste batzuen biharak.*”.

Beraz, interesgarria da aztertzea, ikus-entzule eta artisten artean gertatu zen hartu-eman. Mikel Laboari omenaldia egitea izan zen helburu nagusia, eta hori lortu zen guztion parte hartzearekin. Baina horretaz gain, beste zenbait desio eta sorkuntzatarako bidea zabaltzeko aukera ere eman zuen omenaldiak: alde batetik, ikus-entzulearen aldetik, memoria berreskuratzeko desioa eta oroitzapenak eskaintzen digun sentipenak azaleratu beharra; alegia, lehenaldira osteratxo bat eman beharra, batez ere, nor garen eta zer izan garen ez ahazteko. Bestetik, abeslariak sorkuntzarako tartea izan zuten. Laboaren abesti zaharrak aitzakia, etorkizunerako bidea eraiki zuten: kantu, estilo eta teknologia desberdinak uztartuta, baina, hori bai, nondik gazozen ahaztu gabe.

Laburbilduz eta omenaldiaren zergatiak aztertzerakoan esan dezakegu, omenaldiek memoria ez galtzeko paper sozial garrantzitsua betetzen dutela.

Mikel Laboak bizi zelarik jaso zituen omenaldi bat baino gehiago. Benetan eskertzekoa, izan ere, pertsonalki jaso baitzuen bere lanaren errekonozimendua; are

gehiago esango nuke, aukera izan zuen ikusteko bere abestiak zetozen belaunaldientzat erreferente bihurtu zirela.

1990.urteko ekainean, *Cherokke* hitza *Txerokee* bihurtu zen. Rock belaunaldi gaztearen omenaldia izan zen. Hamaika taldek eta musikariek esku hartu zuten Mikel Laboa omentzeko egitasmo hartan: Su ta Gar, Negu gorriak, Bukaera, Pottoka, Kiowak, Angel G. Katarain, Karkaxa, Delirium tremens, Bap, M-ak, eta Tapia eta Leturia. Bakoitzak Mikelen kantu bana aukeratu, bere estilora bertsionatu eta grabatu egin zuten. Diskoari *txerokee* deitu zioten, eta Seaskaren alde plazaratu zuten⁸.

Hurrengo urtean, 1991ko abenduaren 14an, hain zuzen, beste omenaldi bat jaso zuen Laboak Ipar Euskal Herriko kantarien aldetik, oraingoan, jaialdi bat antolatuz zuten Donibane Garazin, eta lehenengo zatia Mikelen abestiak kantatuz osatu zuten, baina bigarrena omenduari utzi zioten (ibid;65).

Bestelakorik izanik ere, ezin zaio ukatu omenaldi kutsua Iñaki Salvadorrek grabatu zuen *Zilbor hestea* diskoari. Lan hau izen bereko dantza eta musika ikuskizunaren alde musikala da. Ttanttaka antzerki taldeak burutu eta Donostiako Victoria Eugenia antzokian, 1991ko maiatzean, estreinatu zuen. Alde musikala Mikel Laboak sortu edo bildutako eta Iñaki Salvadorrek moldatutako hamar kantuk osatzen zuten: *Txinaurria*, *Izarren hautsa*, *Zure begiek*, *Gaberako aterbea*, *Lizardi*, *Bereterretxen Kanthoria*, *Zilbor hestea*, *Baga biga higa*, *haiza hegoa* eta *O Pello Pello* (ibid; 65).

5. HERIOTZA ETA UNIBERTSALTASUNA

Orain arte aipaturiko omenaldiak (aipatu dudana Hernanikoa izan ezik), Mikel Laboak bizirik profiritatu zituen, bere lanaren emaitza ikusteko aukera izan zuen, eta nolabait herriak eskertu ahal izan zion.

Mikel Laboa joan zitzaigun txori baten modura, eta oraindik ere lagunak, auzokideak, ezagunak eta bere abestien miresleak jarraitzen dugu Mikel Laboari omenaldiak egiten.

2008ko abenduaren batean heriotzak hartu zuen, ordea. Berak bitzta eta heriotzaren arteko muga gainditu zuen. Gu berriz, egoera berri baten aurrean kokatzen gaitu. Memoriaren bidez oroitzapenak eta ahanzturak erreparasatzen ditugu. Hausnarketarako garaia iritsi zaigu. Zergatik sentitzen gara goibel? Zerk hunkitzen gaitu? Oroitzapena, memoria, gure bizi prozesua erreparasatzen hasten delako. Mikel Laboa gure bizitzaren kontakizunean zati garrantzitsua izan delako. Nire kontakizunaren erai-kuntzaren zati bat, zure kontakizunaren erai-kuntzaren zati bat, Mikel Laboak bere kontakizuna kolektibo bihurtu duelako.

Baina heriotzak, beste kontakizun mota batean kokatzen gaitu. Kontakizun unibertsalean.

Konzeptu unibertsala zer-nola ulertzen dudana azaltzeko, bi kontzeptu izango ditut kontuan: ideia unibertsalaren definizioa eta arteak gizakiengan betetzen duen funtzioa. Diccionario de la Real Academia-rik hartutako definizioa izango dut kontuan:

8. AEK, ELKAR, 1995; 64

Ideas universales: Conceptos formados por abstracción, que representan en nuestra mente, reducidas a unidad común, realidades que existen en diversos seres (www.rae.es). Alegia, gizakiaren esperientzia bateratua den une horretan erreparatuko dut. Kontzeptu honekin batera, arteak gizartearen betetzen duen funtzioa beharrezkoa iruditzen zait definitzea. Ficscherrek dio:

El arte es necesario para que el hombre pueda conocer y cambiar el mundo. Pero también es necesario por la magia inherente a él (...) Esta magia que está en la raíz misma de la existencia humana, que da una conciencia de impotencia y a la vez de poder, que hace sentir miedo de la naturaleza a la vez que desarrolla la capacidad de controlarla, es la esencia misma del arte⁹.

Arteari buruz hitz egiten hasten garenean, ezinbestekoa da artista kontuan hartzea. Ficscherrek bere *la necesidad del arte* liburuan, artearen beharraz eta artistaren betebeharrak hitz egiten digu: bi horiek gizakiaren historian zehar izan duten balioak. Bada, artistaren funtzio soziala azpimarratzen du behin eta berriz. Historiaren momentu batean aipatzen digu zein izan zen artistaren betebeharra:

Su deber consistía en elevar la conciencia individual y vital de los habitantes de su ciudad, de los miembros de su clase y de su nación; liberar a los hombres- que habían pasado de la seguridad del colectivo primitivo a un mundo donde reinaba la división del trabajo y el conflicto de clases- de las angustias de un individualidad ambigua y fragmentada y de los temores de una existencia insegura; hacer volver la vida individual a la vida colectiva, la vida personal a la universal; restaurar la perdida de la unidad del hombre¹⁰.

Artea, artista eta artelana batuz gero, gizakiaren bateratasunaren ekuazioa lor dezakegu Ernst Fischerren aburuz:

La aspiración romántica a la obra de arte “universal”- expresión, a la vez, de una aspiración profunda a la unidad del hombre con el mundo y consigo mismo- (...)En cada obra de arte verdadera se suspende la división de la realidad humana en lo individual y lo colectivo, en lo específico y lo universal; pero pervive como factor suspendido en una unidad recreada¹¹.

Baina nola elkartzen dugu “unibertsal” ideia, Mikel Laboa eta bere lanarekin?

Agian, goizegi da ikusteko Laboaren lanaren oihartzunak zein sakonera izan duen kultura mailan. Laboak utzitako ondarearen garapena zein izango den jakiteko, behar bada, oraino, ez dugu behar adinako distantziarik denboran. Baina, jakin badakigu, Laboak bere ondorengo belaunaldietan eragina izan duela, belaunaldi gazteak Laboaren testigantza jaso duela.

Zenbait abesti beren ibilbide propioa ari direla eramaten ikus dezakegu; hala nola, *Txoriak txori* edo *Baga biga higa*. Lehenengo abestia, aurrerago aipatuko dudana bezala, Euskal Herriak bere egin du, hau da, omenaldi xumeak egiterako orduan, abesti hau abesten da. Bestalde, *Txoriak Txori* izango da Euskal Herritik kanpo euskal abesti erreferentea.

9. FISHER E., 2001; 21, 50, 51

10. FISHER E., 2001; 64

11. FISHER E., 2001; 371, 41

Bigarren abestia, berriz, *Baga biga higa*, esperimental alorrean kokatuko genukeena, bere hastapenetan berezia eta arrarotzat hartzen bazen ere, gaur egun, gazteen artean gehien bertsionatzen denetako bat dugu.

Agian, ehun urte barru Laboaren abesti bat entzuten denean, ez dute jakingo norena den, baina, hor, abesti horren barnean, Laboaren ekarpena izango da. Gainera, delako abesti hori ez da zertan Laboak abesten zuen modu berean erreproduzitu beharrik, Laboa errekonozitzeko. Are gehiago, askoz ere aberatsagoa iruditzen zait abesti horrek garapena izatea, azken finean, abesti horrek bizi propioa hartzea.

André Bretonek esaten zuen: *una obra de arte sólo tiene valor si en ella vibra el futuro* (Ibid: 316).

Niretzat Laboaren lanak etorkizunez beterik daude. Mikel Laboak eginiko ekarpena euskal artista batek eginikoa da, alegia, euskal identitate eta kulturaren adierazgarri: etorkizuna kontuan hartu zuen artista baten ekarpena.

Hortaz, memoriaren talaiatik begiratuz gero, Laboak eginiko ekarpena euskal kulturari ez ezik, norbanakoaren eskarmentua aberastu egin duela ere esan dezakegu.

Indibiduo batek, artista batek, Laboak gure kasuan, kolektiboan izan du eragina eta aldi berean kolektibo horretako indibiduo bakoitzean bizipen “partikularrak” eragin ditu, nolabait, euskal kulturari ez ezik, gizartean, orokorrean ere bere ekarpena pausatu delarik. Azken baieztapen honen inguruan Fisherrek dio:

Es esencial distinguir entre la música que sólo se propone producir un efecto uniforme y deliberado, estimular un grupo de personas a realizar un determinado tipo de acción colectiva, y la música que expresa por sí misma sentimientos, ideas, sensaciones o experiencias u que, lejos de fundir los hombres en una masa homogénea con reacciones idénticas, concede libertad de acción a las asociaciones individuales y subjetivas¹² (Ibid: 290,291).

Azken finean, kontakizun indibidual, kolektibo eta unibertsalean oinarritzen naiz.

Tanta bat, bi, hiru... azkenean, ibai bat sortzeko aukera izanen dugu, eta ibai horretan doan uraren (tanten) helburua itsasoratzea izango da. Noski, tanta guztiak ez dira ibai bihurtzen, ez eta ibai guztiak itsasoan amaitzen ere.

Mikel Laboa euskal kulturaren barnean sorturiko tanta izan da, eta ibaiaren barnean doa itsaso zabalerako bidean. Ikusezina, baina esanguratsua den ezinbesteko tanta.

Nolabait, unibertsaltasun hitza erabiltzen dudanean, dimentsio desberdin bateko kokapena izaten da. Zirkuluan pentsatzen badugu, honako hau litzateke prozedura: imajinazioa erabiliz, abesti bat sortzen dugu; ondoren, abesti hori plazaratzen dugunean, kolektibo baten eskura pasatzen da. Denboraren galbahetik pasatzen bada, abesti hori norbanakoaren barnean era desberdinetan kokatzen da, harik eta, gure izatearen zati ikusezin bihurtzen den. Azken pauso hori, dimentsio berri batean kokatzen dut, “unibertsala” deitzen diodan dimentsioan. Orduan, berriro ere, izate berri honekin, imajinazioa erabiliko dugu, eta abesti berri bat sortuko, ondoren...

...bihotzez, betiko.

12. FISHER E., 2001; 290, 291

6. BIBLIOGRAFIA

AEK. *Mikel Laboa*, 1995, Elkar argitaletxea.

AUGÉ, Marc. 1998, *Las formas del olvido*, Barcelona, Gedisa argitaletxea.

EGAÑA, Andoni. *Hogeita bina*, 2004 Hariadna argitaletxea.

FISCHER, Ernst. *La necesidad del arte 1967* Ed. Península argitaletxea GORRITI, J. *Sormen gaitasuna kitzikatuz: sormena lantzeko bideak*. XXVIII. Uda Ikastaroak Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/ EHU), Donostia. 2009.

URZELAI, P. www.berria.info. 2009-03-16.

VALLE, Teresa del. "Metodología para la elaboración de la autobiografía". Ikus: *Identidad y pluriculturalidad en un mundo globalizado*, Godoy argitaletxea, 2002; 245or.